



PRENTSAURREKOA
2025-01-18

ASKO GARA. ETORRI GUREKIN EUSKAL ESKOLA PUBLIKORA

“Ai amatxo ez dut hazi nahi” abesten zuen Urtz taldeak aspaldi, baina bizilege ditugu haztea eta heztea. Etxe askotan etxeko txikienak urrats berria emango du hemendik gutxira, irailean, eskolaratzea. Atarian dugu 2025-26 ikasturterako umeen matrikula egiteko epea, ikastetxea aukeratzeko garaia, alegia.

Osasuna, zaintza, pentsioak, hezkuntza... zerbitzu horien guztien kalitateak jendarte baten ongizate maila adierazten du. Euskal Herri osoan, eta Euskal Autonomia Erkidegoan ere, asko gara guztiona eta guztiontzat den Hezkuntza Publikoaren aldeko hautua egiten dugunok.

Egunotan familiek datorren ikasturteari begira haurra zein eskolatan matrikulatu erabaki behar dute. Guk erantzuna argi dugu: **apustu sendoa egiten dugu eskola publikoaren alde**, eta galdera horren erantzunaren bila zalantzan dabiltzan familiei eta baita gizarte osoari ere, eskola publikoa hautatzeko hamaika arrazoi helarazi nahi dizkiegu:

Unibertsala: herritar guztiontzat irekia eta doako oinarritzko hezkuntza eskaintzen duen bakarra.

Euskalduna: Etxeko hizkuntza edozein dela ere (euskara, gaztelania, hassaniera...) euskara izango dute topagune eta euskal kultura ardatz. Euskaratik eta euskaraz hezteko tokia izango da eskola publikoa.

Anitza: Eskola publikoak gaurko jendartean bizitzeko tresnak ematen dizkie haurrei txiki-txikitatik; eskola publikoan aniztasuna aberastasuna da, pertsona gisa aberasten gaituena. Ezberdinen arteko elkarbizitza

Inklusiboa: denona da, eta denontzat. Norbanako guzti-guztien garapen integralaz arduratzen baita, kolektiboa ahaztu gabe. Ezberdintasunak direnak direla, inor atzean uzten ez duen hezkuntza.

Herritarra: komunitate osoarena dugu, urte askoren poderioz eta lanaren ondorioz familia, ikasle, irakasle, eta langileek eraiki dutena eta gaur egun eraikitzen jarraitzen duguna.

Partehartzailea: jendartearekin bat aldatzen doan eskola. partaidetza gune askorekin: Guraso elkarteak, OOG (Ordezkaritza

Organo Gorena), batzordeak... Bai barruko zein kanpoko ekarpenei irekia: herri eta auzoetan integratua. Gertutasuna, zero kilometroa gure izaera da.

Elkartasunerako, elkarbizitzarako eta elkar zaintzeko gunea.

Berritzailea: hobekuntza eta proposamen anitzi irekia. Elkarrekin eta elkarrengandik ikasten da, talde lanari garrantzia emanez.

Begirada feminista gure hezkuntza komunitatean. Hezkidetzak arlo guztietan landuz.

Jasangarria: etxe ondoan egonik ingurunearekin guztiz bat egiten duelako, herri eta auzoak bizitzez betetzen. Gure herri txikietan edo hiri handietako auzoetan Komunitate izaera indartzen dutenak.

Karrantzako haranean, Gasteizko auzoetan, Anbotoko magalean, Goierriko herrietan, Arabar Errioxako mahastien inguruan, Lodosako lurretan, Kresalak zipriztindutako Donostiako auzoetan, Aiaraldeko fabriken gerizpean, Bilboko itsasadarraren ondoko ikastetxeetan, Isuntza, Arrigorri edo Malkorbe hondartzak jolasleku diren eskoletan, burdinaren herrietan, meatzaldean, Aitzorrotz magaleko Debagoienako herrietan, Camile Hartza Belaguako bailaran ibilitako txokoetan... Bazter miresgarri horietan guztietan (eta gehiagotan) euskal eskola publikoa dugu zain.

Orain, EAEko ikastetxeetan matrikula egiteko garaia dator:

Zoaz gertuen duzun eskola publikora, ezagutu, matrikulatu, eta parte hartu, Eskola guztiok baikara!

Asko Gara! Defenda dezagun guztiona den hezkuntza publikoa!

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAN ZUEN ZAIN GAUDE:
ZATOZTE GUREKIN!

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAZ HARRO TOPAGUNEA

Idazki hau gurekin batera sinatu dute:

Katixa Agirre idazlea; **Jon Arretxe** idazlea; **La Basu** kantaria; **Garbine Biurrun** epailea; **Yogurinha Borova** kantaria; **Sara Cozar** aktorea; **Xabier Euzkitze** aurkezlea; **Aitziber Garmendia** aktorea; **Oihana Iguaran** bertsolaria; **Kepa Iribar** kazetaria; **Izaro Lestaio** patroia; **Xabier Lete** aurkezlea; **Irantzu Mantxo** antzezlea eta klown; **Unai Mendizabal** bertsolaria; **Aner Peritz Euzkitze** bertsolaria; **Txani Rodríguez** idazlea; **Olatz Salvador** musikaria; **María Sanchez** pilota epailea; **Maitane Urbieto** kazetaria; **Asier Zinkunegi** aktorea; **Felix Zubia** medikua; **Dorleta Urretabizkaia** aktorea eta idazlea, **Asier Hernández** aktorea.

